

# ARAUAK



## 1. Julene Azpeitia Lehiaketan honakoak izan daitezke parte-hartzaile:

- a) Durangoko eskoletako gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrak, 18 urte artekoak.
- b) 18 urtetik gorakoan, edonor.

## 2. Lanok euskaraz beharko dute idatzita egon, eta argitaratu gabeak beharko dute izan. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak ondorengo ezaugarri tipografikoekin idatzita aurkeztu behar dira:

Letra tipoa: Univers, Arial, Times New Roman edo antzeko bat.

Puntua: 11 edo 12. Lerroen arteko tartea: 1,5.

- 3. Ezin dira aurkeztu jatorriz beste hizkuntza batean idatziak izan eta lehiaketarako euskaratu direnak.
- 4. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-deiturak, adina, maila, telefonoa, helbidea eta lanaren lema) kartazal batean sartuko dira eta azalean lanari jarri zaion lema bera idatziko da. E-mailez bidalitako lanen kasuan, ipuina, olerkia edo bertsoa fitxategi batean bidaliko da "**ipuina**", "**olerkia**" edo "**bertsoa**" izenarekin eta egilearen datuak "**egilea**" izeneko beste fitxategi batean.
- 5. Epaimahaia Durangoko Udaleko Euskara Sailak izendaturiko zenbait adituk osatuko dute.
- 6. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak aurkezteko azken eguna **apirilaren 30a** izango da. Posta arruntaz edo posta elektronikoz bidali daiteke ondoko helbideetako batera:

**JULENE AZPEITIA LEHIAKETA**

**Durangoko Udala – Euskara Saila**

**[juleneazpeitia@durango.eus](mailto:juleneazpeitia@durango.eus)**

**Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO**

- 7. Epaimahaiak maiatzaren 30ean emango ditu ezagutzera irabazleen izenak, eta sariak **ekainaren 9an** banatuko dira Plateruena Kafe Antzokian, jendaurreko ekitaldi bidez.
- 8. Epaimahaiak sariren bat ez ematea erabaki dezake. Bestalde, saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, eta Udaleko Euskara Saila berauek argitaratzeaz arduratuko da.
- 9. Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

# LEHIAKETAREN SAILAK

## Ipuinak, olerkiak eta bertsoak

### LHko 5. eta 6. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 1-3 orrialde artekoa	Luzera: 10-20 lerro	Luzera: 3 bertso
<b>Saria: liburu sorta (100 €)</b>		

### DBHko 1. eta 2. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 2-4 orrialde artekoa	Luzera: 20-30 lerro	Luzera: 4 bertso
<b>Saria: liburu sorta (100 €)</b>		

### DBHko 3. eta 4. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 3-6 orrialde artekoa	Luzera: 30-40 lerro	Luzera: 5 bertso
<b>Saria: 150 €</b>		

### Batxilergoa – Lanbide Heziketa

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 4-7 orrialde artekoa	Luzera: 40-50 lerro	Luzera: 6 bertso
<b>Saria: 200 €</b>		

### 18 urtetik gora

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 4-8 orrialde artekoa	Luzera: 50-70 lerro	Luzera: 8 bertso
<b>Saria: 600 €</b>	<b>Saria: 300 €</b>	

\*Oharra: olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.